

Agirre Lehendakaria Center Fundazioak uztailaren 23an publiko egin ditu Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak abian jarritako "Entzute prozesuaren" lehen emaitzak.

Aurkezpen txostena ondo aztertu ondoren eta bertan publikatutako emaitzen inguruan instituzioek erakutsi duten isiltasunaren aurrean, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak honako hau adierazi nahi du:

Plataforma honek "Entzute prozesu" honen inguruan dituen zalantzak publiko egin zituen abian jarri zuten momentuan. Hala ere, zuhurtziaz, prozesuan parte hartzea erabaki zuen. Beti ere, instrumentalizazio izpiren bat ikusiz gero, berehala prozesutik irtengo ginelarik argi utzita.

Beti eduki dugu argi eta gaur oraindik ere argiago dugu, Busturialdeak ez duela Guggenheim museorik behar eta prest gaude prozesu honetan eta martxan jartzen dituzten kanpaina guztietan horrela esateko. Kaleetan herritarrek adierazitakoa nahikoa ez bada, prozesu honetan ere gauza bera errepikatu eta dokumentatuta gelditzea salaketa modua dela deritzogu.

Herria entzutea ez da nahikoa. Esandakoa aintzakotzat hartu eta errespetatu egin behar da. Batez ere, "Entzuketa prozesua", instituzioek eurek martxan jarri duten tresna izanik. Pradales Lehendakariak ondo esan zuen: ezin da gobernatu herriari entzun barik. Hementxe dute aukera aparta, eredu izan eta esandakoa betetzeko!

Komunikabideek publiko egin dituzten titularrak entzun eta irakurrita, argi dirudi Murueta ez dela Bilboko Guggenheim museoaren handipena egiteko lekua izango. Beti esan dugu, Biosfera Erreserbaren bihotza dela. Dagoeneko egoera zaurgarria duen eremua da, saturazio zantzuak erakusten dituen eta berehalako premiazko kudeaketa jasangarri aktiboa eskatzen duena. Murueta baztertzek, Urdaibain beste kokapen bat emateko aukera zabaltzen duela dirudi, eta, horren aurrean, oso argi diogu Busturialdeak ezin duela halako makroproiektu turistikorik hartu. Muruetatik urruntzek, Biosfera erreserbaren bihotza salbatzea litzateke, baina ez gaude ez giltzurrunik ez birrikarik sakrifikatzeko prest. Proiektu honek Muruetan suposatuko lituzkeen lege urraketak ekiditeak ezin ditu ordezkatu turismo masiboak eskualdera ekarriko lituzkeen albo kalte guztiak. Gure esku dagoen guztia egingo dugu bata ez dezan bestea ordezkatu. Guggenheim Urdaibai proiektuari Urdaibain Stop!

Bestalde, beharrezkoa ikusten dugu Guggenheim Urdaibai proiektua berehala publiko egitea. Txosteneko 004 pertzepzio-taldean bildutako herritarrek argi esaten dute ezinezkoa zaiela iritzia ematea proiektua ezagutu barik. Informazio eta gardentasun falta da adierazpenik errepikatuena, eta herritarren narratibak zehatzak izatea bada benetan helburua, beharrezkoa da proiektu hau ezagutzea. Gaur bertan! Nahiz eta momentuz indarrean dauden lege eta normatiben arabera, proiektua bideragarria ez izan... Hauxe da dugun errealitatea, instituzioek sortu duten testuingurua etxea teilatutik egiten hastean..

Erakundeok, utzi proiektua bertan behera gaur bertan eta erantzun arduraz Busturialdearen beharrei! Garbitu kutsatutako lurra eta akuiferoa eta hainbat aldiz aho zabalez esan duzue, egin leheneratze lanak. Baldintza barik eta Biosfera Erreserba errespetatuz. Diru publikoa herritarren eta naturaren hobebeharrez inbertituz eta ordainetan, etekin ekonomikorik espero barik.

Eta amaitzeko, txosteneko emaitzen irakurketa okerra edo interesatua egiteak ez du prozesu honekiko errespeturik erakusten. Titularrean, GU proiektuak oposiziorik ez duela esatea manipulazio hutsa da; izan ere, herritarrek beste azpiegitura kultural batzuk onartzeko prest daudela esan dute. Hortxe dago Busturialdea-Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoa (BU EPE) eta bertan proposatzen den azpiegitura kulturala. Dagoen eraikin bat aprobetxatu museoa egiteko; zementu gehiago bota barik eta legeak bihurritu gabe.

Guggenheim Urdaibai proiektuari Urdaibain Stop!

Busturialdean, 2025eko uztailaren 29a